

ALKATEGAIK 2023

**EUSKADIN HAURREN EGOERA
HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

Bertsio egokitua

2023ko hauteskundeak




Edukia




Hezkuntza

1. orrialdea



Pobrezia

8. orrialdea



Haurak mugimenduan / migratzaileak

13. orrialdea



Babesa indarkeriaren aurrean

18. orrialdea



Glosategia

23. orrialdea



Hezkuntza

Zer ikusten dugu?

Zer eskatzen

dugu? Foru Aldundiari
Udalari




Hezkuntza

1

Zer ikusten dugu?

Euskadiko haur eta nerabe batzuek **ezin dute eskolaz kanpoko, aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduerarik egin**, eta ezin dira **udalekuetara, bidaietara edo udalekuetara joan**, haien familiek ezin dituztelako ordaindu.





Zer ikusten dugu?

Egoera zaurgarrian dauden 10 haurretatik 7k egoera berean dauden ikasle asko dituzten ikastetxeetan ikasten du.

Eskola-segregazioari dagokio hori, auzo edo hiri bereko ikastetxeetan haur gehienek profil bera dutenean (nazionalitatea, sexua, desgaitasuna...) gertatzen denari. Profil horrek ez du biztanleriaren aniztasuna ordezkatzen, eta desoreka eta diskriminazioa eragiten ditu.

Hainbat arrazoiengatik, pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzeko aukera handiagoa dute, hau da, haur horien familiek ezin dituzte beren gain hartu ustekabeko gastuak, hala nola betaurrekoak erostea, etxeko argia ordaintzea, urtean behin oportetara joatea edo astean 2 edo 3 aldiz haragia edo arraina jatea.








Zer ikusten dugu?

12 urterekin, neska-mutilak **pornografiako webguneetan** sartzen hasten dira

Inkestan parte hartu duten nerabe gehienek diote **pornografiako webguneetan** ikusi dutena egin dutela bikotekideekin, haiek jakinaren gainean jarri gabe.





Zer eskatzen dugu?

1

Udalek hezkuntza-gaietan gehiago parte har dezaten lortzea, adibidez, honako hauen bidez

- haurren eta nerabeen beharrei kalitatez erantzuteko zer hezkuntza-zerbitzu eskaini behar diren erabakiz.
- 0-3 urte bitarteko haur gehiago haur-hezkuntzan sartzea lortuz.
- ikasle zaurgarrienak identifikatuz (pobreziaren eta bazterketaren ikuspegitik)



2

Eskolaz kanpoko jardueretarako eta laguntzeko baliabide gehiago emanaz (dirua eta profesionalak).



Zer eskatzen dugu?

1

Eskolaz kanpoko jarduera gehiago egotea, ikasturtean zehar eta udan, eta haur eta nerabe guztiek parte hartu ahal izateko aukera izatea, bereizketarik egin gabe, egoera zaurgarrian daudenek bereziki.

2

Haurrak eta nerabeak **kastetxeetan berdintasunez sar daitezzen** bermatzeko neurriak sustatzea. ,

3

Eskola publikoekin lankidetzan aritzea, eskaintzen dituzten zerbitzuen (jarduerak, materialak eta guztien beharrak estaliko dituen hezkuntza) eta **eskola-espazioen kalitatea hobetzeko** (ikastetxeko eraikinak eta espazioak seguruak izatea, ikasleen beharrei erantzutea eta guztiek berdintasunez izena eman ahal izatea).





Hezkuntza

6

Udala

Zer eskatzen dugu?

4

Udalerriko hezkuntza-gaietan gehiago parte hartzea (orain, hezkuntza-gai horiek autonomia-erkidegotik gobernatzen dira).

Eskola-kontseiluetan, hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiek (ikastetxeko haurrek eta nerabeek, haien familiek, irakasleek, zuzendariek eta abarrek) hartzen dute parte, beren ikastetxeak hobetzeko proposamenak eginez.

5

Udaleko eskola-kontseiluek gehiago parte hartzea hezkuntza-gaietan, eta udal-kontseiluak sortze **ahalakorik ez** dagoen tokietan.





Zer eskatzen dugu?


6

Familiei informazioa eta laguntza emango dieten bulegoak sortzea, bereziki ikasle zaurgarriei dagozkienak, beren seme-alabak udalerriko zein ikastetxetan matrikulatu ditzaketen jakin dezaten eta eskola-matrikula Internet bidez egiteko laguntza eman diezaieten, horretarako laguntza behar badute.

7

kastetxeetan, **haurrei eta nerabeei hezkuntza afektibo-sexuala irakats diezaieten sustatzea** (hezkuntza emozionala, errespetuan oinarritutako harreman sozial eta sexualak, sexu-osasuna...), bai eta **Internet modu seguruan eta arduratsuan** erabil dezaten sustatzea ere (teknologia eta Internet erabiltzearen arriskuak: indarkeria, pornografia, etab.).






Pobrezia

Zer ikusten dugu?

Zer eskatzen

dugu? Foru Aldundiari
Udalari




Zer ikusten dugu?

Haurren eta nerabeen hazkuntzaren kostua nabarmenki igo da, oinarrizko premien (janaria, etxebizitza, arropa, eskola-materiala...) prezioak igo egin direlako.

Euskadin, **etxebizitza batzuk ez dira egokiak osasuntsu bizi** (edateko urik, argirik, garbitasunik eta tenperatura egokirik gabe, egokiak ez diren lekuetan edo seguruak ez diren lekuetan eraikiak, etab.).

Horrek **oso ondorio kaltegarriak ditu haurren eta nerabeen osasun fisikoan eta mentalean** (antsietatea, depresioa, lo egiteko eta ikasteko zailtasunak, intimitaterik eza).






Zer eskatzen dugu?

Euskadin, **batez besteko soldataren zati handi bat zuzendu behar da alokairua ordaintzera.**

Haur eta nerabe asko bizi dira etxe pobreetan.

Adingabeak heldu bakar baten zaintzapean bizi diren etxeak dira pobreziak gehien eragindakoak.





Pobrezia

10

Foru Aldundia

Zer eskatzen dugu?


1

Hazkuntzari laguntza ekonomikoa ematea, familiek beren seme-alabak modu osasuntsuan hazi eta zaindu ahal izan ditzaten (18 urte bete arte eta seme-alaba kopuruaren araberako bereizketarik gabe).

2

Hazteko laguntzen diru kopurua handitzea, familiek oinarrizko hazkuntza-premien (janaria, etxebizitza, arropa, eskola-materiala...) prezioen igoerak ordaindu ahal izan ditzaten.





Pobrezia

11

Udala

Zer eskatzen dugu?

1

Laguntzen berri ematea familiei, laguntza horiek eskatzeko modua erraztuz eta, horien beharra dutenean, laguntzak eskatzen lagunduz.

2


Elkarlanean aritzea etxegabetzeak gerta ez daitez**en**, batez ere haurrak eta nerabeak dituzten etxeetan.


Pertsonek beren etxeko gastuak ordaindu ezin dituztelako etxea galtzen dutenean gertatzen dira etxegabetzeak.

3

Benetan etxebizitza sozial bat behar duten pertsonak zein diren hautematea, arreta berezia jarritz etxebizitza sozialak gehien behar dituzten eta horietako bat eskuratzeko izena emanda ez dauden familiei, bai etxebizitza soziala eska dezaketela ez dakitelako, bai eskubide hori aitortuta ez dutelako.

Beren kabuz etxebizitza duina eskuratu ezin duten pertsonei zuzendutako etxebizitzak dira etxebizitza sozialak.





Pobrezia

12

Udala

Zer eskatzen dugu?

4


Haur eta nerabe guztiek **asialdiko, kulturako, kiroleko eta denbora libreko jardueretan parte hartu ahal izatea** ziurtatzea, beharrezkoa denean ekipamendua eta garraioa ordaintzeko laguntzak bermatuz.


5

Hazkuntzaren oinarritzko gastuei (alokairua, altzariak, argia, gasa, dentista, optika, etab.) aurre egin ezin dieten **familiantzako laguntza ekonomikoetan aita edo ama bakarreko familiei** (pertsona heldu bakar baten zaintzapean bizi diren seme-alabak dituzten familiak) lehentasuna ematea sustatzea

6

Haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea beren udalerrian eragiten dieten gaiei buruzko erabakietan, hainbat eremutan (hezkuntza, osasuna, justizia, gizarte-zerbitzuak, etab.).





Haurrak mugimenduan / haur migratzaileak

Zer ikusten dugu?

Zer eskatzen

dugu? | Foru Aldundiari
Udalari



Zer ikusten dugu?

Haur eta nerabe guztiek **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean** aitortutako eskubide berberak dituzte, haien nazionalitatea edo egoera edozein dela ere (migratzaileak, iheslariak edo asilo-eskatzaileak).

Nazioarteko hitzarmena da, eta mundu osoko haur eta nerabe guztien eskubideak betetzera behartzen ditu gobernuak.

Beren herrialdeko muga zeharkatu dute beste herrialde batean babesteko, hilko dituzten beldur direlako (adibidez, gerra bat dagoelako).

Beren herrialdearen barnean edo beste herrialde batera lekualdatzen direnak, hainbat arrazoiengatik. Batzuetan, bakarrik egiten dute, familiako edo konfiantzazko pertsona helduren baten zaintzapean egon gabe.





Zer ikusten dugu?

Euskadin, 3 haur eta nerabe migratzailetik ia 1 **egoera irregularrean** dago.

Beste herrialde batetik datoz, eta oraindik ez dituzte iritsi diren herrialde berrian bizi ahal izateko dokumentuak.



Egoera irregularrean dauden adingabeak, 18 urte betetzen dituztenean, herrialdetik bota egin ditzakete edo **Atzeritarrak Barneratzeko Zentro (CIE)** batera eraman, kanporatu aurretik.

Beren ardurapean seme-alabak dituzten eta beste herrialde batzuetatik datozen familiek **pobrezia-egoera jasateko arrisku handiagoa dute.**



Haurak mugimenduan / migratzaileak

15

Foru Aldundia

Zer eskatzen dugu?

1

Haur eta nerabe migratzaileek 18 urte betetzen dituztenean **behar duten arreta jasotzen jarraitzen dutela** ziurtatzea.

2

Ipar Euskal Herrian haurrak eta nerabeak babesten lan egiten duten **erakundeekiko koordinazioa eta komunikazioa hobetzea.**

3

Haur eta nerabe migratzaileei arreta eskaintzen dieten profesionalek behar bezala artatzeko **prestakuntza** egokia izan dezaten sustatzea.





Haurrak mugimenduan / migratzaileak

16

Foru Aldundia


Zer eskatzen dugu?

4

Bizikidetza hobetzeko ekintzak sustatzea, migratzaileen, asilo-eskatzaileen eta iheslarien ezaugarriak eta behar espezifikoak kontuan hartzen dituztela ziurtatuz.

Beren herrialdearen barnean edo beste herrialde batera lekualdatzen direnak, hainbat arrazoiengatik. Batzuetan, bakarrik egiten dute, familiako edo konfiantzazko pertsona helduren baten zaintzapean egon gabe.

Beren herrialdeko muga zeharkatu dute beste herrialde batean babesteko, hilko dituzten beldur direlako (adibidez, gerra bat dagoelako).





Zer eskatzen dugu?

1

Udalerrian, **pertsonen salerosketaren eta sexu-esplotazioaren aurka** borrokatzeko ekintzak abian jartzea, inoren kargura ez dauden haurrei (beste herrialde batzuetatik datozenak eta senideekin ez daudenak) arreta berezia eskainiz.

Norbaitek haur edo nerabe batek sexu-jardueretan parte hartzearen onura jasotzen duenean gertatzen da, adingabeekiko botere-, indar- edo konfiantza-abusuaren bidez.

Indarkeria erabiliz edo engainuz, pertsona bat borondatez egin nahi ez dituen eta legeak zigortzen dituen jarduerak egitera behartzen denean gertatzen da (lan behartuak, delituak, sexu-esplotazioa, ezkontza behartuak, organoak kentzea, gerretan soldadu gisa borrokatzea, etab.).

2

Udalerrian **bizikidetza hobetzeko eta iheslariak gizartearen parte sentitzeko ekintzak sustatzea**, arreta berezia eskainiz haurrek eta nerabeek ikastetxeetan eta aisialdiko jardueretan dituzten premiei.

3

Asiloa edo babesa eskatzen duten pertsonen laguntza eskaintzea, gizarte-zerbitzuek eskaintzen dieten arreta jaso dezaten (lagun eginez edo hizkuntzarekin laguntza jaso, adibidez).



**Babesa
indarkeriaren
aurrean**

Zer ikusten dugu?

Zer eskatzen

dugu? | Foru Aldundiari
Udalari



Babesa indarkeriaren aurrean


18

Zer ikusten dugu?

Oraindik **ez dira salatzen haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasu guztiak.**

Indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeek, gertatutakoa salatzen dutenean, **bizitakoa 4 aldiz kontatu behar izaten diete pertsona desberdinei.** Hainbeste aldiz kontatzeak zaildu egiten du bizitako trauma hori gainditzea, edota xehetasun batzuk ahaztu ditzakete edo agian ez dute ondo gogoratuko gertatutako guztia.

Haur edo nerabe bat indarkeriaren biktima denean, **epaile baten aurrean deklaratu behar du lehenbailehen, eta haren deklarazioa grabatu egin behar da,** gehiagotan deklaratu behar ez izateko.





Zer eskatzen dugu?

1

Prestakuntzak sustatzea eta ingurune seguruak sortzea, LOPIVI eta haurrei zuzendutako indarkeriaren kontrako euskal estrategia aplikatu daitezen.

Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak erabat babesteko Lege Organikoa: 2021ean onartu zen Espainian, haurrak eta nerabeak edozein indarkeria motaren aurrean babesteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarri behar diren neurrien multzoa da, LOPIVI bete dadin eta Euskadiko haur eta nerabeak indarkeria-mota guztietatik aske bizi eta hazi daitezen.



2

Indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeek **eskubidea dute espazio seguru eta lagunkoi batean entzunak izateko**, beren behar espezifikoak kontuan hartuta eta une bakoitzean behar dutenera egokituta.

Espazio horietan, ez da onartzen haurren eta nerabeen aurkako indarkeria, eta seguru sentitzen dira, entzun egiten diete; haien iritziak kontuan hartzen dira, kezkatzen eta interesatzen zaizkien gaietan parte har dezakete, eta abar.



Babesa indarkeriaren aurrean

20

Foru Aldundia

Zer eskatzen dugu?

2

Justiziako profesionalei (epaileak, fiskalak, talde teknikoak) zuzendutako baliabideak eta prestakuntza handitzea, prozesu judizialean arreta espezializatua, doakoa eta haurren eta nerabeen beharretara egokitua eskaintzen dutela ziurtatzeko.

3

Justiziako eta gizarte-zerbitzuetako profesionalek sexu-abusua jasan duten haur eta nerabeak kalitatez artatzeko **prestakuntza egokia** dutela ziurtatzea.





Babesa indarkeriaren aurrean

21

Udala

Zer eskatzen dugu?

1

Haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalei begira, indarkeriaren aurka nola jokatu eta babestu behar duten, kaltegarriak izateagatik zer jokabide saihestu behar diren eta indarkeria-kasuak nola identifikatu eta horien aurrean nola jokatu behar duten jakiten lagunduko dieten **dokumentuak, arauak eta prestakuntzak sortzea.**

2

Udaletako **gizarte-zerbitzuen bidez**, haur eta nerabeak elkarrekin bizi diren eta erlazionatzen diren ingurune guztiak nahiz haurrak eta nerabeak artatzen diren **inguru guztiak haientzat seguruak direla ziurtatzea**, indarkeriari aurrea hartuz.





Zer eskatzen dugu?

3

Haurren parte-hartzearen garrantzia sustatzea udalerrian, indarkeria-kasuak hautematen laguntzeko eta halakorik ez gertatzeko.).

4

Haurrekin batera, **genero-berdintasunari eta indarkeriari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak** sortzea, indarkeria-egoerak identifikatzen, saihesten eta salatzen ikas dezaten (genero-indarkeria, bullyinga, ziberbullyinga, lgtbifobia, gorroto-delituak, etab.).



Glosategia

HAURRAK HAZTEKO LAGUNTZA: laguntza ekonomikoa ematea, familiek beren seme-alabak modu osasuntsuan hazi eta zaindu ahal izan ditzaten.

GIZARTE-LAGUNTZAK EDO -PRESTAZIOAK: pobrezia edota gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak babesten saiatzen diren laguntza ekonomikoak dira. Adibidez, Euskadin GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL) eta UDAL LAGUNTZA EKONOMIKOAK (ULE) daude; beren etxeetako oinarritzko gastuei (adibidez, alokairua ordaintzea, etxebizitza mantentzea, altzariak, energia, eta dentista eta optikako beharrak, besteak beste) aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten familiei zuzendutako laguntza ekonomikoak dira.

BARNAHUS: haurren etxea esan nahi du islandieraz. Sexu-abusua jasan duten haurrei eta nerabeei kalitatezko arreta emateko erabiltzen den metodo bat da. Arlo horretan lan egiten duten profesional guztiek taldean lan egiten dute, eta haurrak eta nerabeak modu egokian artatzeko beharrezko prestakuntza dute. Etxe bat da, ertzain-etxe eta ospitaleetatik bereizita, eta ingurune atsegina du haur eta nerabeentzat, seguru senti daitezen: haur eta nerabeen adinera egokitutako dekorazioa du, eta profesional espezializatuak daude.

Glosategia

IKASLE ZAURGARRIEN KONTZENTRAZIO HANDIA DUTEN IKASTETXEAK: ESKOLA-SEGREGAZIOARI

dagokio, eta auzo edo hiri bereko ikastetxeetan haur gehienek profil bera dutenean (nazionalitatea, sexua, desgaitasuna edo familien maila sozioekonomiko baxua...) gertatzen da. Arazo bat da hori, ez duelako ordezkatzeko auzo edo hiri horretan bizi den biztanleriaren gizarte-, ekonomia- eta kultura-aniztasuna, eta desoreka eta diskriminazioa sortzen dituelako.

JOKABIDE-KODEA: haur eta nerabeekin harremanetan jartzeko orduan izan behar diren portaerak jasotzen dituen dokumentua da, eta saihestu behar diren jokabide kaltegarriak ere jasotzen ditu. Haurrak eta nerabeak artatzen dituzten erakunde guztiek dokumentu hori izan behar dute, eta profesional guztiek sinatu behar dute, horrela, dokumentuan deskribatzen diren arauak edo portaera-estiloak betetzeko konpromisoa hartu dezaten.

ESKOLA-KONTSEILUAK: hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiek (ikastetxeko haurrek eta nerabeek, haien familiek, irakasleek, zuzendariak eta abarrek) hartzen dute parte eskola-kontseiluetan, beren ikastetxeak hobetzeko proposamenak eginez.

.

Glosategia

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA: nazioarteko hitzarmena da, eta mundu osoko haur eta nerabe guztien (18 urtetik beherakoak) eskubideak betetzera behartzen ditu gobernuak. Espainiak ere sinatu du.

ETXEGABETZEA: pertsonak beren etxeko gastuak ordaindu ezin dituztelako etxea galtzen dutenean gertatzen dira etxegabetzeak.

INGURU SEGURUAK: haurren eta nerabeen aurkako indarkeria onartzen ez den eremuak dira, haur eta nerabe guztiak seguru sentitzea eta erabat garatu ahal izatea bultzatzen dutenak; haur eta nerabeek entzun egiten dietela sentitzeko guneak; haien iritziak kontuan hartzen dituztenak eta kezkatzen eta interesatzen zaizkien gaietan parte hartzeko aukera ematen dietenak; oinarritzko premiak beteta dituztenak; errespetuz eta eskubideak dituzten pertsona gisa tratatzen dituzte, eta ez soilik babestu behar diren haur eta nerabe gisa.

HAURREI ETA NERABEI ZUZENDUTAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EUSKAL ESTRATEGIA

(2022-2025): Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarri behar diren neurrien multzoa da, LOPIVI bete dadin eta Euskadiko haur eta nerabeak indarkeria-mota guztietatik aske bizi eta hazi daitezen. Estrategia honen bidez, EAEko erakundeak eta horietan lan egiten duten profesionalak hobeto prestatuta egon daitezen lortu nahi da, honako hauetarako: indarkeria-kasuak detektatzeko, indarkeria jasaten edo erabiltzen dutenean kalitatez artatzeko, eta haur eta nerabeen aurkako indarkeria gerta ez dadin.

Glosategia

HAURREN ETA NERABEEN SEXU-ESPLOTAZIOA: norbaitek haur edo nerabe batek sexu-jardueretan parte hartzearen onura jasotzen duenean gertatzen da. Esplotatzaileek gehiegikeriaz jokatzeko adingabeekin, botere-, indar- edo konfiantza-abusua gauzatuz. Sexu-esplotazioaren barruan sartzen dira bai sexu-jarduerak egitea (prostituzioa), bai haurren eta nerabeen sexu-irudiak dituzten materialak erabiltzea (haur-pornografia).

EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN HAURRAK ETA NERABEAK: hainbat arrazoiengatik, pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzeko aukera gehien dituzten haurrak eta nerabeak dira, hau da, gutxienez 3 egoera hauekiko batean daudenak:

- bizitzeko behar dutena (elikagaiak, sendagaiak, arropa, etxebizitza, argia, ura...) ordaintzeko adina dirurik ez duen familia batean bizi dira.
- bizitza duina izateko oinarritzko hainbat produktu erosi edo ordaindu EZIN dituen familia batean bizi dira (adibidez, gutxienez urtean astebete oporretara joan ezin direnean; ezin dutenean haragia, oilaskoa edo arraina jan 2 egunean behin; ezin dutenean etxebizitza tenperatura egokian mantendu; edo ezin dutenean autoa, telefonoa, telebista eta abar eduki).
- pertsona helduek urtean hilabete gutxi batzuetan lan egiten duten familia batean bizi dira.

Glosategia

GIZARTE-BAZTERKETA JASATEN DUTEN FAMILIETAN BIZI DIREN HAURRAK ETA NERABEAK: hainbat arrazoiengatik, beren adineko beste neska-mutil batzuek parte hartu ohi duten jardueretan parte hartu ezin duten haurrak eta nerabeak dira .

HAURRAK MUGIMENDUAN / HAUR MIGRATZAILEAK: hainbat arrazoiengatik beren ohiko bizilekutik kanpo lekualdatzen diren haurrak dira, beren herrialdearen barnean edo beste herrialde batera, aldi baterako edo betiko. Batzuetan, bakarrik egiten dute, familiako edo konfiantzazko pertsona helduren baten zaintzapean egon gabe.

PERTSONEN SALEROSKETAREN BIKTIMA DIREN HAURRAK ETA NERABEAK: indarkeria erabiliz edo engainuz, haur edo nerabe bat borondatez egin nahi ez dituen eta legeak zigortzen dituen jarduerak egitera behartzen denean gertatzen da (lan behartuak, delituak, sexu-esplotazioa, ezkontza behartuak, organoak kentzea, gerretan soldadu gisa borrokatzea, etab.). Pertsonen salerosketa halakoak jasaten dituzten pertsonen aurkako delitua da (biktimak). Trafikatzaileek hainbat taktika erabiltzen dituzte biktimak kontrolatzeko eta delitu horrekin dirua irabazteko, hala nola abusu fisikoa eta sexuala, xantaia, manipulazio emozionala eta dokumentu ofizialak kentzea. Pertsonen salerosketa biktimaren jatorrizko herrialdean, beste herrialde batera joateko egindako migrazio-bidaian edo atzerriko herrialde batean gerta daiteke.

Glosategia

LOPVI - INDARKERIAREN AURREAN HAURRAK ETA NERABEAK ERABAT BABESTEKO LEGE

ORGANIKOA. Espainian 2021ean argitaratutako legea da, haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko. Lege horren helburua da hurrek eta nerabeek edozein indarkeriatatik fisikoki, psikologikoki eta emozionalki babestuta egoteko dituzten eskubideak bermatzea. Lege honek honako hauek jasotzen ditu: haurren eta nerabeen aurkako edozein indarkeria-mota bereizten ikastea, nola eta non salatu daitekeen jakitea, indarkeria jasaten edo erabiltzen dutenak behar bezala artatzen jakitea, eta indarkeria gerta ez dadin nola jokatu jakitea, besteak beste.

EGOERA ADMINISTRATIBO IRREGULARREAN DAUDEN ADINGABEAK: beste herrialde batetik datozen haurrak eta nerabeak dira, eta oraindik ez dituzte iritsi diren herrialde berrian bizi ahal izateko dokumentuak.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (HPB): lagun egiteko edo laguntzeko beharrak dira, aldi baterakoak edo iraupen luzekoak, beren adineko gainerako neska-mutilen aukera berberekin parte hartzeko eta ikasteko zailtasunak dituzten hurrei zuzendutakoak.

HAUR ETA NERABE IHESLARIAK: hilko dituzten beldur direlako (adibidez, gerra bat dagoelako) beren herrialdeko muga zeharkatu duten eta beste herrialde batean babestu diren haur eta nerabeak dira.

Glosategia

ASILOA ESKATZEN DUTEN HAURRAK ETA NERABEAK: beste herrialde batean iheslari izaera onartzeko eskatu duten baina oraindik behin betiko erantzunik izan ez duten haurrak eta nerabeak dira. Asilo-eskaeraren bidez, harrera-herrialdean geratzeko behar duten dokumentazioa jaso dezakete.

HAURREN PARTE-HARTZEA: eskubide bat da, eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren oinarritzko lau printzipioetako bat. Haur eta nerabe guztiek eskubidea dute informazioa jaso eta beren iritzia osatzeko, beren iritzia askatasunez emateko eta beren egoerei buruzko iritzia kontuan hartua izan dadin. Era berean, eskubidea dute asoziazionismoa sustatzeko, haurrak eta nerabeak ordezkatzeko berezko gune gisa. Eskubidea dute beren ahotsa kontsultatua, entzuna eta kontuan hartua izan dadin, eragiten dieten politika publikoak diseinatzen eta gauzatzen direnean.

HAURREN POBREZIA: pobrezia pairatzen duten familietan bizi diren hurrek eta nerabeek jasaten dute, beren etxeetan modu osasuntsuan bizitzeko behar dutena ordaintzeko nahikoa dirurik ez dutenean (elikagaiak, sendagaiak, arropa, etxebizitzaren ordainketa, argia, ura...).

BABES-POLITIKAK: haurrak eta nerabeak babesteko jarraitu beharreko urratsak deskribatzen dituen dokumentua da.

Glosategia

HAURREN ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA-KASUAK DETEKTATZEKO PROTOKOLOA: haur edo nerabe baten aurkako indarkeria-kasu bat detektatzean eman beharreko urratsak jasotzen dituen dokumentua da, haur eta nerabeak bizi diren eta erlazionatzen diren esparruetan edo horiek artatzen dituzten eremu bakoitzean erabiltzeko.

GIZARTE-BABESEKO SISTEMA: herrialde batean pobrezia murrizteko eta pertsona guztiak pobrezia- edota gizarte-bazterketako arriskuaren aurrean babestuta daudela ziurtatzeko dauden laguntzek osatzen dute, horrela gizarte-bidezkoagoak eta inklusiboagoak eraikitzeko, pertsona guztiek bizitzeko beharrezkoa dutena dutela ziurtatuz. Gizarte-babesak herrialde bateko pobrezia murrizten laguntzen du, bai eta pertsona guztiek herritar guztien eskubide ekonomiko eta sozial berberak (osasuna, hezkuntza, enplegua...) izango dituztela bermatzen ere.

BIGARREN MAILAKO BIKTIMIZAZIOA: indarkeriaren biktima izan diren pertsonak bizi duten egoera da, beren beharretara egokitutako arreta egokia jasotzen ez dutenean artatu behar dituzten zerbitzuen aldetik (justizia, gizarte-zerbitzuak edo osasun-zerbitzuak, esaterako); egoera horrek zailagoa egiten du pertsona horiek aurrera egitea. Biktimek zerbitzu horiek erabiltzeko aukerarik ez dutenean gertatzen da hori, edo zerbitzuak haien beharretara egokitzen ez direnean, babesten ez dituztenean, azkar jarduten ez dutenean, edo zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalek prestakuntza egokia ez dutenean edo haurraren edo nerabearen gaitasunetara, adinera edo heldutasunera egokituta komunikatzen ez direnean.

BABES SOZIALEKO ETXEBIZITZA: beren kabuz etxebizitza duina eskuratu ezin duten pertsonentzako etxebizitzak dira.



Save the Children

Bertsio egokitu honen
egilea:

POSSIBLE  LAB

savethechildren.eus